

N

U



H A M A B O S T E K A R I A

1997ko apirilak 30

Usurbil, 19. Zenbakia

700 HEKTAREA ETA 562
METRO FESTARAKO

HILDAKOAK



1997-4-25
Carlos Lope Tomé
 57 urte
 Zubiaurrenea, Kaleberri

JAIOTZAK

Olatz Uli Arruti
 (1997-04-07)
 Atxegalde

Leire Begiristain Lopez
 (1997-04-09)
 Aginaga

EZKONTZAK

M^o del Mar Franco Merino
 (Kalezar)
 eta

Andoni Arretxe Susperregi
 (Hernani)
 (1997-04-12)

Juan Karlos Apaolaza
 (Kalezar)
 eta

Mari Carmen Garcia
 (Zumaia)
 (1997-04-26)

Arantxa Maiz Pagola
 (Kaleberri)
 eta

Xabier Udabe Pagola (Kalezar)
 (1997-04-26)



"Markesaren alaba
 interesatua
 Urdaiagako ermitan
 bertan ezkondua
 apirilak ho(ge)itabost
 e(g)un seinalatua
 zuei informatzeko
 hantxe zen **Noaual**!"

Bai, esan

- Udala
- Udaltzaingoa
- Anbulategia
- Udarregi ikastola
- Agerialdeko ikastetxea
- Oiardo kiroldegia
- Zumarte musika eskola
- Etumeta euskaltegia

37 19 51
 36 11 12
 36 20 13
 36 12 16
 36 38 95
 37 24 98
 37 15 94
 37 20 01


- Taxi geltokia
- D.Y.A.
- Gurutze Gorria
- Gure Pakea egoitza
- Gure Elkartea egoitza
- Arrate egoitza
- Eusko Tren informazioa
- **Noaual** aldizkaria

36 21 78
 46 46 22
 27 22 22
 37 32 28
 37 17 51
 36 63 40
 47 09 76
 36 03 21



Usurbilgo Udalak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

**Dagoeneko 331 usurbildar
 bazkide ditu Noaual-k
 Zu ere egin zaitez bazkide!**



Kultura sailak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

3er irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
Noaua.mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagoia
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde eta
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**
Arantxa Usarralde, Aitor
Pikabea eta Nerea Kamino.
Erredakzio Kontseilua: Olatz
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazkoa: Susana
Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banaketak:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

PORTADA: Andatza egu-
neko erromeria. Aitor
Alkortaren gaztetasunaz
ohartu noizkoa den jakite-
ko.



Maiatzaren lehena, langileon eguna

Bittor Iribar

LABeko afiliatua

Maitzaren lehenak Munduko langileriaren-
gan esanahi berezia hartzen
duen bezalaxe, Euskal Herrian
ere bere sakontasunean
adierazten da.

Euskal Herriko langileriak
sufritzen duen eraso atal
ezberdinetan kokatzen dela
esan genezake. Hor dugu,
besteak beste, Madrilen
Patronalaren zuzendaritzare-
kin CCOO eta UGT sindika-
tuek adostu berri duten LAN
ERREFORMA berria. Langileen
eta lan-harremanetarako
euskal esparruaren aurkako
hitzarmena izateaz gain,
Euskal Herriko ERAIKUNTZA
NAZIONALARI egiten dion
eraso bortitza.

Adostu berri duten Lan-
Erreforma berriarekin aldi
baterako kontratuek bere
horretan jarraitzen dute.
Zabor-kontratuei dagokienez,
aldaketa eskasak jasotzen
ditu. Kontratu "mugagabe"
berria arautzen da. Antza,
egungo langile finkoak apur-
ka ordezkatzeko lan merka-
tuan sartzeko oztopoak dituz-
tenei zuzendutakoa eta lan-
gileria osoarengan segurtasun
eza areagotzen duena.

Kaleratzea errazagoa eta
merkeagoa izango da. Lan
banaketaz, lanaldi murrizke-
taz, aparteko orduaz, ETTaz,
esaldi borobilak agertzen
dira, baina patronalari ez
zaio gai horietaz konprome-
zurik hartzera behartzen.
Negoiazio kolektiboari, ber-
riz, zentralismo espainiar ito-
garria jartzen zaio. Euskal
esparruan negoziatzen diren
hitzarmenak zapuztea du
xede. Euskal sindikatu gehien-
goak lan-harremanetarako
Euskal esparrua eskuratzeko
duen eskubidea oztopatu
egiten du.

Euskal Herriko ERAIKUNTZA
NAZIONALarentzat ezezik,
langilearentzat ere, Madrilen
adostu berri duten akordioa
atzerapauso nabarmena
delako, LAB sindikatuak SALA-
TU egiten du.

Maiatzaren 1ean, Euskal
Herriko langileon eskubideak
BERE OSOTASUNEAN harturik,
LAB sindikatua, EUSKAL
HERRIA ERAIKI ENPLEGUAREN
ALDE esaldiarekin kaleratuko
da, eta Usurbilgo herriari dei
egiten dio DONOSTIAN egin-
go den MANIFESTALDIAN
parte har dezan.

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)



TABERNA

Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17

LB T

HARATEGIA

Atxega Alde, 34
Usurbil

☎ 36 57 42



ZUBERROTARREN ESKERRONA

Idazle batentzat, alfer xamar fama daukanarentzat gainera, ez da errez, aitzur-pikotxa erabili ondoan, lumaren hartzea zuen guzien bihotz-onezko elkartasuna eskertzeko. Gure bihotz harkorretarik, zuen bihotz oparoki emaitetara abiatzen dira egun Habia elkarrearen eta Eperra ikastolaren goraintziak.

Alabaina, iragan abendoaren 14ean Sohütan lanak hasi genituen bakardade sozialik handiengan: interlokutore publiko baten bilatze urratsek huts egin zuten, lekuko hautesien borondate politiko eskasaz, baina hauek gero, beren indar guzia balantzari jarri zuten ikastola berri proiektora abandonatu ginezan. Ez dugu amor eman, eta laguntza etorri zaigu.

Abendoaren 14 euritsu eta hotz hartaz geroztik hemen zenbaitek ikusi duzuen bezala, lanak aitzina doatzi, girorik

hoberenean, eta orain segur gaude aurtengo eskola-sartzea Sohütako egoitz berrietan antolatuko dugula: segurtamenak izpirituaren lasaitasuna ekarten digu nolazpait. Ordea, segurtamen eta izpirituaren lasaitasun horren oinarrian, elkartasuna dago, eta nolako elkartasuna! Mila mol-detakoa, diru emaitzak noski, bai eta auzolan proposamenak: ugariak dira jadanik Sohütatik pasatu diren edozein elkarte, jendeen, herrien esku-ukaldiak. Larunbat zenbaitetan, Sohütak Babel iduri du, harritik harrira, zutik jartzen dela, euskarazko erakaskuntzarantz zuzen eta duin izango den aterbea.

Egun Usurbilen gira, Etxebeste jaunak ameriketakosarekin ordaindu elizaren maldan, sahetsean, aurrean, Eperra ikastolaren alde montatu duzuen besta honetan: guk ez dugu amerikarik, alta Usurbilgo elizaren hormaren antzeko eraikinak lurrasetarik altxarazten ditugu, gure altxor

bakarra, euskarak euskaldun eta lurralde hauetako bizidun egiten gaituen sendimendua delarik. Sokratesek ez ote zuen idatz arazi bere ikasgelaren atarrian "zotüka zitaie!" lema, guk ere ausarki balia dezakeguna, ikastola ezik herriaren eraikitze, eta gure beharren nahiz ametsen arabera biziarazteko.

Eskuak katxez hanpaturik dauzkan idazle alfer xamar hau bietan hunkiturik dago gaur Usurbilen izaiteaz: leheni eta ez duelako jakingo elkartasun honen guziaren eskertzeko hitz egokien atzemaiten, eta bigarrenik gogoan dituelako hemen, aspaldi handian, higitu gau eta goizurrako zurbailak. Hara egia funtsean erranik.

Eskerrik hanitx bera.

Elkarrekin eraikitzen dugu ikastola berria Zuberoan.

Itxaro Borda

Eperra ikastolako zuzendaria

Idatzi hau apirilaren 27an irakurri zuen Aitzagan, Zuberoko Eperra ikastolaren aldeko egunean.



Erramua frontoiaren estalki berrian. Ohitura zaharrek oraindik irauten dutela, bai horixe! Arkitektoaren esanetan eraikuntza berria egiterakoan erramua jartzen zuten lehen, ondoren lanak amaitzerakoan jabeek afari edo bazkari bat ordain zezaten. Kasu honetan herritarrok gara frontoiaren jabe eta herri bazkariaren bat egin beharko dugu.

**BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI**



Kale Nagusia, 2
Tlf. 36 40 58



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13



Kale Nagusia, 2 Tel. 36 59 43



ANE LOIDI LEUNDA

Txokoaldetarra dugu 27 urteko gazte hau, baina duela bi urtetik hona Getarian bizi da. Hamar urte daramatza ileapaintzale lanean egun erdiz, eta duela zortzi hilabete bere bizitzako oparirik onena jaso du: Intza, bere alaba.



Nolatan sartu zinen ileapaintzaile?

Beno, nire ama ere ileapaintzailea da, eta suposatzen dut beti mundu hori ikusi dudala, eta azkenean ni ere bertan sartu nintzen. Gainera, asko gustatzen zait nire lana.

Asko kosta al zitzaizun lana aurkitzea?

Urte bete pasa nuen ikasketa hauek osatzen, eta amaitutakoan ez nuen lanik aurkitu. Beraz, Illunben sukaldari hasi nintzen lanean.

Eta Txaroren ileapaindegian nolatan bukatu duzu?

Txarok laguntzaile bat behar zuela eta nirekin gogoratu zen, berak deitu zidan. Orduan 17 urte nituen. Noski, hasieran buruak garbitu eta lurra eskobatu egiten nuen. Denborarekin hasi nintzen gauza "garrantzitsuagoak" egiten.

Eskolan erakutsitakoak balio izan al zizun orduan?

Oso gauza desberdina da eskolan erakusten dizutena eta gero lanean aurkitzen duzuna. Ez dauka ia zerikusirik. Gainera, zorte oso ona izan dut Txaro bezalako profesional batekin lan egiten, berak erakutsi dizkit "truco" pila bat.

Zer da zure lanbideko gauzarik zailena?

Niretzat behintzat jendeak zer nahi duen jakitea. Jendeak askotan ez daki zer egin nahi duen, gero zuk ez duzu ondo ulertu eta amaieran bezeroa ez da gustora geratzen. Horregatik nahiago dut aldizkari bateko argazkiarekin etortzen zaidana, horrela behintzat badakit zer nahi duen. Horrela biontzat hobe.

Zein dira bezero onenak?

Dudarik gabe, 40 urte inguru dituztenak.

Zergatik?

Horiek astero etortzen direlako.

Gazteak ez dira etortzen, ala?

Bai, baina behin etorri z gero, ez dira denbora eder batean berriro bueltatzen. Gainera, orain egiten diren ile orrazkerak irauteko eginak daude.

Egun normal batean zenbat jende etortzen da?

Beno, ideia bat egiteko, 15 pertsonako eguna nahiko ona dela esan daiteke. Bestela, 10 inguru edo. Hala ere, zaila da kontuak ateratzea, egun batean pila bat etortzen dira, eta bestean ia inor ez.

Eta zein garaitan etortzen da jende gehien?

Komunioak direnean, gabonetan eta Santixabeletan.

Hain garrantzitsua al da aldizkari "arroxak" edukitzea ileapaindegietan?

Bai. Astero-astero erosten ditugu. Segituan hartzen digute kargu aste batean erosten ez badiugu. Kontuan izan behar da denbora asko pasatzen dela ileapaindegian sartuta, eta aldizkari hauek hizketarako gaia eta "giroa" sortarazten dute.

Eta herriko kontu txikik ere lantzen al dira?

Batzuk bai, baina normalean "kotilleoa" baino gehiago herriko berri jakiten duzu. Niri behintzat oso ondo datorkit informazio hau, herriarekin lotura mantentzen laguntzen dit. Hala ere, beti hona etortzen saiatzen naiz.

Zer egiteko eskatzen dizu jendeak?

Gezurra badirudi ere, izugarrizko eragina dute famosoek. Haiek nola jarri, ziur egon jende pila batek orrazkera hori eskatuko dizula.

Udaran ze orrazkera eramango da?

Orain eramaten ari dena: ilea kapetan eta "brillo" biziakin.

PORTUARRUNE



**ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK**

Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

**Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako**

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

URDAIAGA



**Leire
Atxega**

Andatza eguna gertu eta mendia zikin

Andatzen ibiltzen diren ohizko mendizaleak zeharo haserretuta dabilta azken egunetan. Buzoi ondo-ko txabolean norbaitek **leiho eta teilatuko kristal guztiak txikitu** ditu. Ze kalte egingo zuen ba!. Gaua pasatzeko eta atsedean hartzeko toki oso egokia denari, orain sapatik ura sartzen zaio. Hori gutxi balitz **mendi gaina zaborrez** josita omen dago. Aste Santuan jende ugari ibili zen eta haiek utzitako zaborra izango da. Hain paraje ederra egoera horretan uztea penagarria da benetan.

Datorren iganderako, garbitu eta txukunduko ote dutel, maiatzeko lehen igandea izanik **Andatza eguna** ospatzen baita, Bestela a ze paisaia ikusi beharko duen jendeak. Egun berezi horretan Andatzara igotzen den mendizaleak jendilaje horrek egin duena ez duela egingo espero dugu. Mendia garbi mantentzen ahalegindu behar dugu. Ea ba ahal den garbitasun haundienaz Andatzen egun polita pasatzen dugun. Horretarako eguraldi ona ezinbestekoa izango da. Hainbeste egun euririk gabe pasa ondoren ez al du ba egun horretan egingo!



ATXEGALDE



**Amagoia
Mujika**

Kexekin gora eta behera

Ezer baino lehen gure kexuek erantzuna izan dutela azpimarratu beharra dago. Izan ere, aurreko aleetan eskatu genuen modura, errepide nagusira jeisteko **eskaileretan barandila jarri dute**. Argazkian ikus dezakezuen moduan paretaren kontra jarri dute barandila. Eskerrak. Aspaldian euririk egin ez badu ere, maiatzetako euri egunak iragarri dituzte, eta bustitzen direnean eskailera hoiien egoera tamalgarria izaten da. Barandilarekin **ezbehar gutxiago** gertatuko dira, ziur egon.



Bestalde, ohitura ez haustearren, beste kexu batzuk iritsi dira niregana. Alde batetik, Agerialde inguruan bizi diren auzokideen kexak ditugu: haizea kaleak astintzen hasten denean ikastetxeko **alarma edozein momentutan martxan** jartzen omen da. Honek loa galerazten die atxegaldetar hauei. Gaueko isiltasunean alarma hotsa, eta ezin lo egin. Bestetik, **Osinalde** eremu industrialaren parean dauden etxeetan berdina gertatzen da. Lantegietako alarmarekin lo egin behar izaten dute askotan, alarma ez baitute nahi bezain azkar isilarazten.

Egia esan, arazo hau konpontzea ez dakit nori dago-kion, baina zerbait egin deza-tela. Atxegaldetarroi lasai lo egiten utzi mesedez!

TXOKOALDE



**Iñaki
Labaka**

Agur angula denboral- diari

Anguleroek bukatu dituzte **Angula harrapaketak**. Aurtengoa urte eskasa izan omen da. Angula **oso gutxi** harrapatu da **Oria ibaian**. Angulak egin duen prezioak poz-tu du piskat anguleroa, inoiz baino garestiago saltzeko aukera izan baitu. Hala ere saiatu ez direnik ezin esan. Aste Santua pasata ere ibai bazterretan farol argiak ikusteko aukera izan dugu. Baia gorde eta hurrengo urtean probatu beharko da oster. Hobe izango ote da!

Txokoaldeko frontoiari estalkia jartzeko aurrerapausoa eman du udalak. Ba zen garaia! Horrenbeste denbora frontoi berrituaren zain eta guztia geldirik. Eguna joan, eguna etorri frontoi zaharra bere horretan. Oraingoan udalak frontoiko **estalkia egiteko lanen adjudikazioa lehia-ketara atera** du. **10 milioiko aurrekontua** izango du estalki berriaren eraikuntzak eta aurrekontu horretara moldatu beharko dute lan hori egin nahi duten enpresek. Pauso honekin datorren urterako pilotan ibili ahal izatea espero dugu. Ea egia den.

KALEBERRI



**Ines
Kamino**

Motzaeneko etxeak egiten hasi dira

Betiko ohiturari jarraituz eraikuntza lanetaz hitze-
gin behar dizuet oraingo
honetan ere. Agian ohitura
txarra izango da, baina beste-
rik ez dagoenean... Hitz zapa-
rrada haundi samarra behar
izaten dut tarte hau betetze-
ko, eta ez dagoen tokitik ezin
atera. Auzotarren kexuak eta
eraikuntza lanak dira estuas-
netik ateratzen nauten gaak.

Motzaeneko baratzarenak
egin du. Hemendik aurrera
Motzaneko etxeetaz hitze-
gin da garai bateko baratza
baino gehiago. Apirilaren
21ean ekin zioten lanari Iraba-
ko langileek. Oraingoz abiada
bizian hasi dira, ikusi egin
behar gero noiz amaituko du-
ten. Guztira **16 etxebizitza**
izango ditu, garaje eta lokal
komertzialez gain. Etxebizitza
hauetako bat erosi nahi due-
nak **15 milioitik gora** ordaindu
beharko du, hori baita prezio
baxuena. 22 milioi ere es-
katzen omen dituzte. Eta guz-
tia garajerik gabe, izan ere,



etxearen azpiko garajeren bat
nahi duenak bi milioitik gora
ordaindu beharko du.

ZUBIETA



**Xabier
Arregi**

Letrak Zubieta hizpide hartuta

Kalekantoitik liburu mardule-
ra ekarri du **Anjel Lertxun-**
dik ondoko abestia:

*Zubietako neskatzak hama-
bost urtetako
Amontegin dabilta gallegoe-
kin bapo*

Aidanean, zer izango eta,
larru-jotzea da "amontegin ibil-
tzea". Azkuek jaso zuen kanta
hau **Zubietan**. Hori bai,
Orotariko Hiztegian garbi asko
azaltzen denez Nafarroakoa
da abestiko Zubieta (neskatzak
ere hala izango dira).

Letra musikatuak dira **Jon
Sarasuaren "Zubietan"** kopla-
sortakoak. Oskorrik jarri die doi-
nua bertso polit horiei. Hona
hemen pasarte bat:

*Gaixo jartzen direnean
neskatxa suharrak
ilargitan sendatzen dituzte
sukarrak
Hego haize gau epela
dago Zubietan
errekak bero-bero doaz
zubietan*

Ez dakigu zierto zein Zubieta
zuen Jonek buruan bertso
horiek idaztean; baina, kanta
zaharrenekin duten antza ikusi-
ta, pentsa liteke Nafarroakoa
izango dela hau ere.

Letra bidezkoak **J.R. Zubimen-
dik** oraindik orain kaleratu due-
n liburuan daudenak. Iritzi arti-
kuluak bildu ditu Joxe Ramo-
nek liburuan, euskara txukun,
aberats eta irakurterrazean.

Letra itzuliak **Edorta Agirrek**

Joan Mari Irigoieni erdaratu
dizkionak. "Poliedroaren Hosto-
ak" nobelaren itzulpen molda-
tua da "La Tierra y el Aire" ize-
nez argitaratuko dena. Itzal
handiko lana. Eta itzaleko
letrak **Josu Urrutikoetxearen**
"Giltzapeko Sukaldaritza" liburu-
txoan Edortak egokituta kalera-
tu direnak.

Guri buruzkoak batzuk, gureak
besteak: bada letratik
Zubietan.

KALEZAR



**Begoña
Zubiria**

San Juanak iristeko bi hilabete falta

Maiatzean sartzeraz goaze-
nen honetan **Noaua!**ko
egutegiari begirada bat bota
diodanean ohartu naiz: **San
Juanetarako bi hilabete baina
gutxiago** falta dira. Konturatu
baino lehen Kalezarko festak
gainean ditugu!. Baina ez pen-
tsa jai batzordea geldirik dago-
enik, izan ere, jadanik auzoko
jaien egitaraua osatzen ari
dira. Aurrerapenen bat emate-
koa nintzen, baina hanka sartu
beharrean hobe izango da
beste hilabete itxarotea.

Bestalde, aurreko alean Kutxa
fundazioak **Kalezarko "humilla-
dero edo negartokia"** eraberri-
tzeko asmoa zuela agertu zen.
Zaharrek badakite zein den
leku hori, baina gazteek? Hona
hemen Kalezarko "negartokia".



H erorrek esan



Idoia Arrieta

Aginaga

Bai. Uste dut kale hau ez dela ezinbestekoa autoentzat. Gainera, inguru honetan haurrak jolasten ibiltzen dira, eta oinezkoentzat balitz lasaiago egongo nintzateke.



Koro Segurola

Arrobitxulo

Oso egokia iruditzen zait. Batez ere haurrerengatik. Gaur egun geroz eta kale gutxiago ditugu oinez ibiltzeko, eta hori oso beharrezkoa da bai haurrentzat eta guretzat ere.



Eustakio Zabala

Kaleberri


Beno, kale hau oinezkoentzat jartzea ondo ikusten dut, baina nik kale horretan uzten dut furgoneta, eta hori dela eta nahia go nuke Etxebeste kalea dagoen bezala utziko balute.



Jexus Tapia

Atxegalde

Oso ondo iruditzen zait Etxebeste kalea oinezkoentzat bihurtzea. Kale honek ez dauka kotxeak ibiltzeko nahiko tokirik, ez itxurarik. Aparkatzeko lekurik ere ez dago eta!



Amaia Ullate

Bizkarre

Primera proiektua iruditzen zait. Izan ere, askotan umeak kale horretara ateratzen dira, batez ere frontoi izkinera, eta noiz edo noiz kotxe bat dela eta sustoren bat ere hartu izan dugu bertan.



Jose Prados

Atxegalde

Ni oinezkoentzat bihurtzearen aldekoa naiz guztiz. Bertatik kotxeak ibiltzeko tokirik ere ez dago eta! Beraz, oinezkoen kalea izan beharko luke, hori egitea izango litzate zentzuzkoena, behintzat.



Arantxa Errekondo

Kaleberri

Bai, batez ere haurrerengatik, beti kezkatuta ibiltzen gara auto batek joko dituen ala ez. Gainera, ez dut uste arazo haundiegirik dagoenik bertan, ez trafikoarengatik eta ez eta aparikatuta egoten den kotxe kopururengatik, izan ere, jadanik ia inork ez du bertan aparkatzen.



Benito Aranburu

Aginaga

Niretzat kale hau oinezkoentzat bakarrik izan beharko luke. Batez ere oso estua delako. Zabalagoa izango balitz eta autoak lasai ibiltzeko adina izan... ba beno, baina den bezalakoa ikusita, hobe da solik jendearentzat izatea, erosoagoa da horrela.



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 2255



Ekaitz

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

Peoi eta igeltsero lanpostuak zuen zain

Udala herriko informazio iturri nagusia dela entzun izan dugu behin eta berriz. Udalbatzek, gobernu batzordeek... ematen dute zeresanik. Lanpostuak, lur erosketak, adjudikazioak eta beste hainbat informazio nahasten da lapiko haundi horretan. Nori ez zaizkio kontu hauek atsegin?

Langileen eguna gainean dugula ikusita, lanpostu kontuekin ekingo diogu. Izan ere, apirilaren 12an udalak sortu zuen lorazain laguntzaile lanposturako frogak egin ziren. Emaizta onenak **Pedro Mari Agirre Mujikak** lortu zituen eta sei hilabetetan arituko da lanean. Bestalde beste bi lanpostutarako deialdia egiteko asmoa du udalak: batetik, oposizio askearen bidez **peoi bat** kontratatatu nahi du. Oposaketan parte hartzeko hemezortzi urte beteta edukitzea, oinarritzeko ikasketen edo baliokideen titulua edukitzea eta B-1 gida-agiriaren jabe izatea ezinbesteko baldintzak izango dira. Bestetik, **igeltsero bat** kontratatatzeko oposaketa deialdia egingo du. Igeltseritza lanpostu hau lortzeko 18 urte eduki eta B-1 gida-baimena edukitzeaz gain, eskola graduatu, lehen mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokide baten jabe izan beharko du.

Anbulategi zaharra jubilatuentzat prestatzeko lehiaketa

Kaleberriko jubilatutak behin



Udalak kamioi-furgoneta hau erosi berri du.

baino gehiagotan izango zuten hizpide kontu hau: Noiz egin behar dute guretzat egoitza berria? Jadanik mugimendua hasi da. Gaztanazpin dagoen anbulategi zaharra jubilatuentzat prestatzeko lanak kontratatatzeko lehiaketa irekiko da laister. Aurrekontuak 25.227.203 milioitakoa izango da.

Txokoalden trenbidearen igarobidea albiste
Udalak, Txokoaldek erriberara joateko pasabide nagusitik bide bat egiteko asmoa zuela agertu genuen lehengo batean. Honen arabera, Eusko Trenbideak egingo ditu proiektua nahiz obra, eta udala lurak lortzeaz arduratuko da. Proiektua egin ondoren kaltetutako lur-jabeekin adostasunera iristen saiatu da alkatua. Guztiak ados agertu ez direnez desjabetzapen espedienteari ekingo zaio. Ondasun eta eskubideen zerrenda,

jendaurrean jarriko da, Aldizkari Ofizialean argitaratuz 15 eguneko epean interesa-tuek ondasunen egoerari buruzko alegazioak jar ditzaten.

Eman S.A lantegiak industrial pabelloia eraikiko du

Eman S.A arte grafikoan aritzen den inprimategi bat da. Asteasuainen, lehen **Abrasivas Dogo** zegoen lekuan lantegi bat eraikitzeke eskaera egin zion Usurbilgo udalari eta honek baimena eman dio. Lizentzia eman eta sei hilabeteko epean hasi beharko dituzte lanak eta bi urteko epean amaituta egon beharko dute.

"Kultur etxe" atzeko udal lurzatiek adjudikatu da Langabezi egoeran aurkitzen den Juan Cruz Osa eta Felix Hernani jubilatuek erabili ahal izango dute baratza moduan lurzati hori.



kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 37 03 44

Urtez-urte Andatzaren eguna ospatzen

Urtero bezala, aurten ere maiatzaren lehenengo igandean (maiatzak 4) Andatza eguna ospatuko dugu usurbildar askok. Aurtengo eguna, ordea, berezia da. Izan ere, Andatza KKEk egun hau antolatzen duen 20. urtea baita.

1997ko maiatzaren 22an antolatu zuen lehen aldiz Andatza KKEk lehen Andatza eguna, elkarteak sortu eta denbora laburrean. Elkarateak izen hori izanda, zerbait berezia egin behar zutela pentsatu zuten. Bai-na horretaz gain, **Jabier Arrutik**, elkaratearen sorrerako kideak azaldu digunez, "Andatza eguna 1933an egiten hasi zirela jakin genuen. Erromeria eta guzti ospatzen zen orduan ere, eta bertan bilzen ziren Zizurkil, Aia eta Orioko jendearekin. Gainera, garai hartan jarri zituzten gurutzeko plaka eta ikurriña; gero, gerra denboran norbaitek hautsi zuena. Andatza eguna berreskuratu genuenean, plaka eta ikurriña berriro jarri geni-

tuen. Lehengo Andatza eguna maiatzaren 22an ospatu genuen, baina gurutzearen eguna maiatzaren lehen egunetan ospatzen zenez, azkenean beti maiatzaren lehen igandean ospatzea erabaki genuen".

1933.
urtean
hasi zen
Andatzare
n eguna

Andatza eguna berriro ospatzen hasi zen lehen urteetan Zizurkilgo mendi elkarteak gonbidatu bezala etorri zen, eta hurrengo urtean, berriz, Aiakoa. Gaur egun, Andatza mendiarekin muga duten herriak etortzen dira gurekin batera festa ospatzera. Jabierrek adierazi digunez, "era honetan ohitura zaharra berreskuratu egin genuen".

Prestaketa haundia
Duela 20 urte egiten zituzten prestaketak eta aurten egingo

direnen artean ez dago desberdintasun haundirik, bi kasuetan, lan ugari dago egiteko. Dena antolatuta utzi behar hurrengo egunerako: bazkaria prestatzeko eta eguna behar den bezala ateratzeko behar diren hainbat gauza prest egon behar dute. Gainera, Andatza KKEko kide batzuk bertan lo egiten dute bezperan, gutzia zaintzeko.

Meza eta babarrun-jana
Aurten ere, urteroko moduan ospatuko da Andatza eguna. **Patxi Pagola**, Andatza KKEko kideak adierazi digunez, "goizeko 9.00etan irtengo gara udaletxe aurretik. Eguerdiko 12.00etan meza izango da, eta 14.00etan, berriz, babarrun-jana. Egun guztian zehar trikitilari eta bertsolariak izango ditugu, gainera". Babarrun-janarengatik, haurrek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute; helduek 1.500 pezeta eta bazkideek 1.000 pezeta. Eguraldi txarra egingo balu, bazkaria Ageri Alde ikastetxean egingo litzateke. Ziur gaude, batean edo bestean, ederki pasatzeko parada izango dela.

Ondo pasatzea, ordea, ez da oraingo kontua bakarrik. **Jabierrek** kontatu digunez, "urte batean Martuteneko gartzelan meza ematen zuen apaiza etorri zen. Badirudi egun horretan eguzkiak gehiegi jo zuela eta ondorioz, "egarri" haundia jarri zitzaion. Horrela, eguna amaitu zenean, kotxez, bariantea alde batetik bestera zeharkatu eta izkinean geratu zen kotxea eta guzti. Guk kotxea ateratzen eta gordezten lagundu genion, Ertzaintza etorri zenean, ez zegoen ez istripurik ez kotxerik. Nola poztu



Eguerdiko 12.00etan meza izango da aurtengo Andatza egunean. Ondoren dantzarako eta babarrunak jateko aukera.

ANDATZA ETA IRISASI

Hamahiru urte joan dira, ez alferrik!, 1984ko Andatza Egunerako idatzi nituenetik kontu hauek. Orduko hartan gutxitxo zabaldu oman zirela eta, hemen dituzu oster, berriro argitaratzeak merezi duelakoan. Gauza ederra baita, izan ere, nork bere herriko historiaren berriak nagusienetik jakitea. Usurbil, Aginaga eta Zubieta ez dira atzo goizekoak, eta garai bateko hamaikatxo kontu ikasteko gaude. Ba al zenekien, esate baterako, ez dugula behar bezala erabiltzen "Andatza" izena?

Andatza eta Irisasi

Guk Andatza deitzen diogun mendiaren izena, aspaldi-aspalditik datorren izena Irisasi da: Irisasi mendia, horixe du berezko izena.

Zer da, hortaz, Andatza izena? Izen berria? Ez horixe, aintzina-aintzinatik dator Andatza izena ere; baina ez da mendiaren izena, baizik eta mendi-gailur batena. Jakingu duzu, noski, Usurbilgo mendirik haundiena den horrek bi gailur-mutur dituela: bata, gurutzea dagoenekoa; eta bestea, antena-eta daudenetakoa. Gurutzea dagoen mendi-gailur horren izena, eta horrena bakarrik, da Andatza. Eta beste gailur-muturraren izena Iria edo Irigain da.

Mendi hori bat bakarra da, beraz: Irisasi mendia. Eta mendi bakar horrek bi gailur-mutur ditu: Andatza eta Iria (Irigain). Lehengo zaharrek, behintzat, izen horiek erabiltzen omen zituzten, joan deneko zazpiehun urteotako paperetan ageri denez.

Txindoki eta Beterri

Izen aldaketa hori, alegia, mendi-zati baten izena ematea mendi osoari, eta aintzinako izena galtzera uztea, ez da hemengo kontua bakarrik. Beste horrenbeste gertatu omen da Txindoki deitzen diogun mendiarekin: Goierriko mendi horren izena, berezko izena, Larrunarri omen da, eta ez Txindoki. Larrunarri izenez azaltzen omen da paper

zahar guztietan, eta oraindik ere bizi omen dira beti Larrunarri deitu izan diotenetako goierritar batzuk.

Donostialdea eta beterri

Leku-izena kontu honekin ari garenez, ba al dakizu beste aldaketa bat datorkigula gainera? Aldaketa larri samarra, gainera; ez baita huskeria Usurbil (eta beste hainbat udalerri) Donostiaren itzalean izendatu nahi izatea.

Horixe egiteko asmoa dute; nonbait: Donostialdea deitzen diote, ofizialki, Gipuzkoako gure eskualde honi. Akabo Begerri, akabo Kostaldea, eta akabo Bidasoa aldea! Hemendik aurrera, dena Donostialdea! Horixe da donostiarraren kabitua ezina!

Izen-aldaketa hori eragozteko garaiz dabiltzanez, uste dut Usurbilgo udalak baduela zer esana eta zer eginga gai horretan ere. Zuri zer iruditzen zaizu?

Joxe Ramon Zubimendi



zen apaiza gu ikustean!"

Andatzako ur eta lurrak

Istorioak istorio, Andatza eguneko arazorik haundiena ur ifalta izaten da, izan ere, ez lehen eta ez orain ez dago iturriarik Andatzako gailurrean. Eguraldi ona egiten duenean, behintzat, guztiontzat ura izatea nahikoa arazo bihurtzen da. Aspaldidanik hasi ziren ura bidoietan igotzen, eta aurten ere horrela jarraitzeko asmoa dago. **Patxi Pagolak** azaldu digunez, "aurten ere bidoiak emango ditugu, baina horretaz gain, deposito bat ere jarri nahi dugu. Ez dakit, ordea, hori posible izango ote den".

Andatzak ur gutxi badu ere, lurrez aberatsa da. Orotara,

Andatza edo Irisasi mendiak, gutxi gora behera, 700 hektarea ditu. Hauetatik 475 hektarea "insicnis" pinuak betetzen ditu, 100 hektarea "itsasoko" pinuak, eta gainontzekoak lizarrak, haritzak eta gaztainak dira banatuta dago.

Andatza
edo Irisasi
mendiak
700 hekta-
rea ditu

Juan Zapirain, Andatzako basozainak esan digunez, "hainbeste pinu egotearen arrazoia pinua oso errentagarria izatea. Hau da, azkar haz-

ten da (35-40 urte) eta egur ona izateaz gain, egur kopuru haundia ematen du. Adibide gisa, laster 40 hektareatako pinudia botatzeko asmoa du Foru Aldundiak bertan, eta honen balioa, gutxi gora behera, 60 eta 80 milioi pezeta artean egon daiteke".


Zuhaitzez gain, ordea, Andatzak beste altxor batzuk ere ezkutatzen ditu: basurdea, azeria, basahuntza, azkonarra, erbia, untxia, oilagorra, zape-laitza, aztorea, mirua... dira bertako basoan bizi diren animalietako batzuk.

Hau guztia eskaintzen digu Andatzak. Guk egun bat eskaintzea ederki merezia du.

Idoia Torregarai

Hiru kilo inguruko liburuan 1977-97 bitarteko liburugintza

Azken hogei urteotako euskal liburugintza aztertzen duen "**Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua**" izeneko liburuak eman du zeresanik azken bi aste hauetan. **Joan Mari Torrealdai** izan da egilea. Usurbilen bizi den idazle, soziologo eta kazetariak liburugintzaren prozesu osoa kontatzen du. Honez gain, euskal idazleen azterketa egiten du eta ia 300 idazleri egingdako inkesta da azterketa horren iturri. **Torrealdairen** iritziz 284 euskal idazle aktibo daude egun, hauetatik %54 gipuzkoarrak. Idazle lanetatik %5-6 bizi da inkesta honen arabera eta 532ri idazle profesional izatea gustatuko litzaieke. Koloretako hainbat argazki eta grafikoz hornituta, 736 orrialde ditu liburuak.



Arg: Egin

Presoen alde hiru egunetako itxialdian



Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz **itxialdia** egin zuten 15 herritarrek Udarregi zaharrean apirilaren 18tik 20ra. Horrekin batera enkarteladak eta manifestaldiak ere izan ziren. **Ramon Uribe** usurbildar preso ere gose greban egon da, eta berarekiko elkartasuna adieraztea ere izan du helburu itxialdiak. Gaur egun 567 euskal preso politiko 74 gartzela desberdinetan sakabanaturik daude. Horietatik 125ek kalean egon beharko lukete kondenaren 3/4ak bete dituztelako. Eta guztiek beraien eskubideak ziurtatuta eduki beharko lituzteke. Hori horrela ez delako, hori **salatzeko** eta aldarazteko burutu zuten hiru egunetako itxialdia.

Usurbil eta UEMA uztarri berean: bi mahainguru interesgarri

Usurbil ekainaren erdialdera UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean) sartuko denez bi mahainguru egin dira, apirilaren 22an bata eta 24an bestea.

Aurrenekoan, **Esteban Agirre** UEMAko Euskara Teknikariak eta **Joxe Javier Iñigo** EKBko idazkari nagusiak "euskararen erabilera" izan zuten mintzagai. Lehendabizikoaren esanetan "euskararen presentzia administrazioan oso txikia da, baina Usurbilen ez da hori gertatzen; XIX. mendetik hasita udal ordenantzak euskaraz baititu".

Bigarrenean, **Xabier Intxaurraga**, EAKo kideak eta **Joseba Albarez** HBko kideak UEMAk dituen zailtasunak azaldu zituzten, momentu honetan 130 udalerrietatik 31 bakarrik baitaude UEMAn. Mahainguruan izatekoa zen **Eusebio Larrazabal** EAJko kidea ez zen etorri horretarako arrazoi politikoak zituela argudiatuz.



41 MENDIAZALE AZPEITITIK USUR- BILA

Apirilaren 20an 41 partaide animatu ziren Andatza KKEk antolatutako trabe-siara. Hauetatik 20 inguru ziren herritar-
rak eta gainontze-
koak inguruko herri-
takoak. 11 ordutako
trabesia hau 8 ordu-
tan egin zuen
Billabonako talde
batek, markarik
onena eginez.
Denbora gehiena
pasa zutenak, berriz,
usurbildar batzuk
izan ziren: 12 ordu
t'erdia. Beste urteta-
koa baino luzeagoa
izan da aurtengo
trabesia, eta jende-
ak nekatuta bukatu
zuen. Hala ere, etxe-
ra gustora buelta-
tzeko diploma bana
jaso zuten denek,
eta beste 11 sari ere
zozketatu ziren
(mendirako materia-
lak).



Andatza K.Ek antolatutako diapositiba emanaldia
Aikustera jende ugari hurbildu zen Udarregi zaha-
rrera. Koke Lasak 1994an Peruko Andeetan izandako
esperientzia azaldu zuen diapositiben laguntzaz. Pisc
(5.752), Chopicalpi (6.354), Huescaran (6.768) eta
Alpamayo (5.847) mendietan ateratako irudi zoraga-
rriak izan ziren ikusgai. Noiz joango ote gara gu?

KANPOTARRAK HERRITAR

Usurbila kanpotar
asko etortzen da
bizitzera, eta poliki-
poliki herriko ohitura,
hizkera eta bizimo-
dura moldatu beha-
rra izaten dute, gai-
nera. Esperientzia
eta moldaketa pro-
zesu horiek elkarri
giro polit batean

kontatzeko asmoz
Usurbilen bizi diren
kanpotarren arteko
bazkari bat antolatu
da. Ekainaren 7an
izango da Aginaga
sagardotegian.
Animatzen denak,
berriz, izena maia-
tzaren 17a baino
lehen eman behar-
ko du herriko taber-
netan jarri diren
orrietan.

TIRABIRAK ZUBIETA ALDEAN

Zubietako herri
batzarrak, Gazte
Asanbladarekin
batera Gurtertz
elkartearen lokala
istea erabaki zuen.
Gurtertz elkarteak
lehen Lokotxa aldiz-
karia argitaratzen
zuen, baina azken
urte hauetan elkar-
teak ez du ekintza
berezirik egin. Lokal
honen hertsierak
eman du zeresanik
Zubietan, eta hitz
gogorrez gain borro-
karen bat ere izan
da.

ASKAPENARI DIRULAGUNTZA

Kuban, irailean,
Euskal Herriaren
inguruan kultura eki-
taldiz osatutako
astebetea aurrera
eramateko. Askapen
a taldeari 100.000
pezetako dirulagun-
tza eman dio uda-
lak.



Larrua Truk taldeak "Aurpegi biren jabe" beren
lan berria zuzenean aurkeztu zuen joan den
apirilaren 18an Aginagako eliza zaharrean. **Josu**
Errekondo "Motza", **Joseba Agirresarobe "Txofo"**,
Jexux Agirresarobe eta **Haritz Harreguyk** ordube-
te baino gehiagoko kontzertua eskaini zuten.
Hauen aurretik **Folkcore** Zarauzko taldeak eskaini
zituen bere abestiak. Talde honen emanaldian
egon zirenek **Harkaitz Iparragirre "Kale"** zubiet-
arra ikusi ahal izan zuten baxua jotzen.



Udalak **kale garbigailua** erosteko lehiaketa
ireki zuen orain dela hilabete inguru.
Apirilak 17an amaitu zen makina hauek aur-
kezteko epea. Irudietan dituzuen bi kalegar-
bigailu horiek besterik ez dituzte aurkeztu.
Maiatzaren 6a baino lehen hartu behar
zuten erabakia, baina udaleko ordezkarien
esanetan **bi ibilgailu hauek ez dituzte gusto-
koak**. Bai bat eta bai besteak ez dituzte
baldintza egokiak betetzen eta agian auke-
raketa hau bertan behera utziko dute beste
lehiaketa bat ireki asmoz.

KIROL KOPLA



**Aitziber
Aranberri**

Ez naiz ni pelotaria, baina nire kuadrilako mutil batzuei "pelotarena" egiteko kirol koplaz baliatzea erabaki dut. **Mikel Ibarreta** eta **Imanol Zarautz "Troia"** Gipuzko-ako herri arteko txapelketan ari dira buru-belarri. Apirilaren 18an Zizurkil aldera joan zitzaizkigun, eta emaitza ezin hobeak ekarri ere bai. Hirutik hiru. **Olaizola II-Arruti, Ibarreta-Troia** eta **Portularume- Huizi II** bikoteek garaipenak lortu zituzten.

Apirileko azken asteburuan Usurbilgo frontoian jokatu behar zituzten partidukoak Michelingo pelotalekuan jokatu behar. Eguraldia goibel omen zegoen eta estalkiaren faltan Lasartera joatea erabaki, hau marka. Ez zen ustekaberik izan, 18-9, 22-18 eta 22-7ko garaipenak eta Usurbil hurrengo kanporaketara.

Zorionik beroenak pelotari gazte hauentzat eta ea hurrengo kanporaketarako autobusak antolatzen ditugun gure animoak beraiei eskaintzeko.

la ahaztu zitzaidan. Aurreko alean Usurbilgo nesken taldeak Oiartzunen aurka bina berdindu zuela jartzen zuen. Behin irabaziko eta hori ere kendu egin behar. 2-1 irabazi eta denboraldiko laugarren garaipena lortu genuela argi geldi dadila. Azkenengoa ez dadila izan.

Eskubaloi taldea puntaren-puntan

Bejondeizuela mutilak!. Ez da txantxetako lorpena. 5500 biztanle dituen herri bateko eskubaloi taldea **F.C. Barcelona, Iruñeko San Antonio** eta **Zaragozako Corazonistas** taldeen aurka aritza Espainiako txapelketan. Eta nola gainera!. Zorte apur bat falta izan zen denak gainditzeko. Nork sinistuko zuen hori orain dela urte batzuk. Azken hiru urteetan **Usurbil K.E**-ren izena ohikoa izan da txapelketa honetan, kadeteetan lehendabizi eta jubeniletan azken bietan.

Aurten, jubenilek, Euskadi mailan bigarren postua lortu ondoren, Iruñean Espainiako txapelketako lehen sektorea jokatu dute apirilaren 18tik 20ra bitartean. Eibarren maiatzaren 1etik 4ra jokatu den azken fasean egon ahal izateko lehen postua lortzea zen helburu nagusia.

Lehen jardunaldian Nafarroako txapelduna, San

Antonio, zuten aurrez-aurre. Hauek beren kantxan jokatzen zutenez partidu gogorra aurreikusten zen, baina neurketa guztian aurretik egon ondoren Usurbil K.E 24-30 nagusitu zen.

Bigarren jardunaldian F.C. Barcelonaren aurkako norgehiagoka erabakiorra izan zitekeen. Garaipenak lehen postua ziurtatuta utzi zezakeen. Eta halaxe izan zen, baina usurbildarren zoritxarrerako. Izan ere 35-28 galdu zuten. Kataluniarrak gehiago izan ziren neurketa honetan. 13 goletako errenta poltsikoan zuten bigarren zatian eta neurketari buelta ematea ezinezkoa izan zen usurbildarren-tzat.

Hirugarren jardunaldian 21-19 irabazi zuten Zaragozako Corazonistas-en aurka, baina azken faserako txartela galdua zuten jadanik. Hala ere lan bikaina Usurbil K.Eko jubenilek egin zutena!



laz bezala aurten ere Espainiako txapelketako azken faserako txartela ez dute lortu Usurbil K. E. gazteek. F. C. Bartzelonaren aurka bakarrik galdu zuten



ZUMET A
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,
bazkariaketaafariak
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"
3.200 pta.

Zuen zaingeratzengara!

MAHUKA



GAZTE DENDA
Orain, udaber
puntako n

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 36 11 06



Aginaga Sagardotegia berriz finalean Kontxako hondartzan

Ohitarri jarraituz, eta huts egin gabe, Kontxako hondartzan senior mailako finalean usurbildarrak izango ditugu. Apirilaren 27an, Eguzkiaren Lagunak taldeari 4-2 irabazi ondoren finale-rako txartela lortu zuen Aginaga Sagardotegi-

ak. Hasieran Bingo Londres izenarekin eta gero Aginaga Sagardotegiaren izenean zazpigarren aldiz jarraian finalean izango dira. Azken partidu hau, maiatzaren 4an jokatu dute San Ignacio Donostiako taldearen aurka.

Joseba Zubeldia in-dartsu txirrindularitzan

Martxoan Gipuzkoako selekzioarekin Frantziara joateko hautatua izan ondoren apirilean indarberrituta dabil **Joseba**. Orain arte postu onak eginak zituen, baina ez zuen garaipenik lortzen. Apirileko hirugarren asteburua ordea, oparoa izan zen berarentzat, urteko lehen garaipena lortu baitzuen. Hilaren 19an Legorretako laisterketan lehen postua eskuratu zuen. Hurrengo egunean Intxaurrendon garaipena eskura eduki arren bigarren egin zuen.

Usurbilgo igeriketa taldea Zarautzen

Datorren maiatzaren 10ean Usurbilgo igeriketa taldeak Zarautzko "Igeri Txapelketan" parte hartuko du. 4, 6 eta 7. mailako neska-mutilak Gipuzkoako beste herrietako igerilariekin lehiatuko dira Zarautzko piszina arratsaldeko 3.30etatik aurrera. **Oihana Irazusta, Zuriñe Olasagasti, Maite Lopetegi, Nagore Maiz, Maria Furundarena eta Julen Otsagabiak** denboraldi honetako lehen txapelketa jokatu dute. Animo neska-mutilak.



Euskadiko sambo selekzioarekin Azerbaijanera

Anartz Aizpurua, eta **Vanessa Guevara** usurbildarrak Euskadiko selekzioarekin Europako Sambo txapelketan aritzeko aukeratu dituzte. Beraz, Azerbaijanera bidaiatuko dute, maiatzaren 1etik 4ra bitartean Europako txapelketan parte har-

tzeko. Hauekin batera, **Usurbil Judo Taldekoak** diren **Mikel Ponga** eta **Ibai Peña** ere aukeratuak izan dira. Oiaro kiroldegian egindako Euskadiko Sambo txapelketan 16 domina lortu ditu Usurbilgo Judo taldeak.

Areto futboleko txapelketaren hasiera

Maiatzaren 2an, ostiralean, hasiko da **Antxeta Areto Futbol** taldeak urtero antolatzen duen txapelketa. **15 taldek** eman dute izena eta bi multzo egin dira. Bakoitzean zortzi talde egongo dira, elkarren aurka jokatzeko. Ondoren, final zortzi-rena, eta finalera arte kanporaketak. Ligaxkako partiduak **Santueneko zelaian** jokatu dira ostiral ilunabar eta larunbat arratsaldetan. Kanporaketak, aldiz, kiroldegiko barruko pistan izango dira.

Telesforo Ardoak

Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20

BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK
ETA AUKERA ZABALA

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42

Marmitak txukuntzen dekoraziorako

t A P S P 23 213



Irriua, kantuan behintzat abila.

Irriua, txori kantari bat da. Baina Usurbilgo herrian izen honek esanahi zabalagoa hartzen du: urteetan herriko bazterrak, batez ere eliz ingurua, kantuz apaintzen aritu den abesbatza baitugu. Herrian, kanpoan, etxean, kalean, bakarka edo taldean, kantua hartzen dute ahotan, eta kantuzaleak biltzen dituzte inguruan.

Herriko zaharrenek ere aspalditik gogoratuko dute Usurbilgo abesbatza. Eta ez dute arrazoi faltarik, eliz inguruan, parroki inguruan, beti izan baita kantuan aritzeko eta entzuteko aukera. Abesbatza hauen zuzendaritzaz herriko apaizak arduratzen ziren.

1980. urtea baino lehen, **Juan Mari Udabek** hartu zuen ordea lan hau, eta bera izan zen, **Don Julian Txikiren** ondorengo zuzendaria. Handik gutxira, **Ramon Udabek** hartuko zuen Juan Mari bere anaiak utzitako zuzendari makila. Gaur egun, oraindik ere, bera dugu **Irriu** abesbatzako zuzendari.

Baina ordurarteraino Usurbilen izandako abesbatzak, 1980tik aurrera, nora bidea aldatu zuen. Lehendabiziko lana abesbatzari izena jartzea izan zen: horretan behintzat

ez zuten lan handirik izan; "Irriu izena bi arrazoiengatik proposatu nuen: batetik, Irriua txori bat delako, eta txoriek kantuan aritzea dutelako gustoko. Eta bestetik, Irriua elizaren bueltan ibiltzen delako gu bezala" esan digu **Arantzazu Aranburuk**. Proposatu eta inongo arazorik gabe, onartu egin zuten izen hau. Garai honetan urrats berri batzuk eman nahi izan zituzten, eta hau izan zen estreineko pausoa

Dudarik gabe, 80. hamarkada izan zen Irriu abesbatzaren "urrezko aroa". Etxean betiko kontzertuak emateaz gain, **Andoain, Donostia** (Igeldon eta Santa Maria parrokian), **Orio** eta **Zumaian** eman baitzituzten emanaldiak. Eta Euskal Telebistak garai batean igande goizetan eskaintzen zituen meza nagusietan ere Irriu

abesbatzak abestu izan du: Usurbilgo parrokian grabatu zen bat, San Estebanen beste bi, eta **Lazkaoko** herrian azkenekoa. Garai honetakoak dira abesbatzak gaur egun dituen jantzi dotoreak ere.

Betidanik, 40ren bat lagunek osatu dute usurbilgo Irriua. Baina noski, urteak ere ez dira nonbait alferrik pasatzen, eta taldea nahikoa zaharkitua dago gaur egun. Hori da Irriu abesbatzak duen arazorik larriena, hots, gazteak falta zaizkiela.

Eta ez pentsa lan askorik hartzen dutenik: astean entseiu bat egiten dute, ostegunetan. Eta data oso berezietan, gehienez bi. Izan ere, gaur egun, hainbat elizkizunetan, eta santixabeletan egiten den herriko taldeen jaialdian abesten dute, eta gauzak aldatzen ez badira horrela jarraituko dute.

Badakizu, kantua atsegin baduzu, kantuan aritzeko gogoia izan ezker, eta gaztea bazara, herriko txori kantarienen alboan kantatzeko aukera ederra duzu. Ahhh, eta hauen entzuleei gogorarazi, santixabeletan izango dutela Irriu taldea kantuan entzuteko hurrengo aukera.

Garikoitz Udabe



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala



Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 1
Tel.: 36 10 79 Usurbil

Askotan herriko leku edota argazkiei begira jartzen gara lehiaketa honetako galde-erantzunak direla eta. Ba, oraingoan, gora begiratu. Bai, bai, gora, zerura! Ze, galdera honen erantzuna bidali beharko diguzue **Patri** jatetxean bi pertsonentzako afari bat irabazi nahi baduzue:

Zenbat hegazkin pasako dira maiatzaren 4an Usurbildik?

- a)- 10 baino gutxiago
- b)- 10-50 bitartean
- d)- 50 baino gehiago

Hiru erantzunetatik bat aukeratu eta maiatzaren 12rako gure buzoira bota dezakezue. Badakizue Kale nagusiko 37. zenbakian gaudela. Eta... zorte on!



Arg: Argia



Egieleta sagardotegiraino joan ginen argazki hau ateratzera, eta egia esan ez zaigu batere ondo atera. Dena den, ziur **Jone Eizmendirentzat** prestatzen duten afaria goxo-goxoa eta ona izango dela. Azken finean, argazkia baino inportanteagoa da afaria, ezta?

Udarregi bertsolariaren omenez egindako monolitoa nork egin ote zuen galdetzen genuen aurreko alean, eta asko animatu zarete erantzuna ematera. Eta bai ondo eman ere! **Remigio Mendiburu** izan zen frontoiaren ondoko monolito hori egin zuena.

Monolitoa bere lekuan utzi eta **Sekaña** jatetxera bidean jarriko dena **Angel Jimenez** izango da. Beste baten konpainian afari eder bat egiteko aukeran zara. Zorionak!



Aitziber Elortza

ZENDOIA - ENEA



TABERNA



Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 36 25 60



Aginaga
36 27 73

BEREZITASUNAK
SEKAÑA
Txerrikumea,
Txuleta eta Arraia

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

APIRILAK 30 asteazkena

- **Zumarte musika** eskolak bigarren **kontzertu pedagogikoa** antolatu du **Salbatore elizan**. Bertan, **Zumarte eskusoinu taldeak**, **Usurbilgo txistulari taldeak**, **Zumarte perkusio taldeak** eta **Zumarte orkestrak** parte hartuko dute. Kontzertua arratsaldeko **20.00etan** hasiko da.

MAIATZAK 5 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren **konzentrazioa** errotonda aurrean. Arratsaldeko **20.00etan**.

MAIATZAK 10 larunbata

- **Larrua Truk** taldearen **kontzertua** Añorgan, Latzenekin batera.

MAIATZAK 12 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren **konzentrazioa** errotonda aurrean. Arratsaldeko **20.00etan**.

OHARRAK

- ✓ **Maiatzaren 4ean Andatza eguna** ospatuko da urtero bezala. **Irteera** udaletxe aurretik izango da goizeko **9.00etan**. **Meza** eguerdiko **12.00etan** eta **bazkaria** (babarrun jana) arratsaldeko **14.00etan**. **Txartelak maiatzaren 1** baino lehenagoko eskuratu beharko dira **Txiriboga** edo **Bordatxo**



Usurbilgo odol emaileen elkarteak jakinarazten du datorren maiatzaren 12an, goizeko **7.00etatik 9.00etara** **odola eman** ahal izango dela Usurbilgo **anbulategian**.

tabernan. Haurrak: 1000 pta. Helduak: 1500 pzt. Eta bazkideak: 1000 pezeta. Euria egingo balu, bazkaria Ageri Alden izango litzateke.

- ✓ **Macintosh Classic ordenagailua** eta **inpresora** dauzkat salgai. Interesatua dagoen edozein, deitu eza zue telefono honetara: **36 03 89**.

LANPOSTUAK

- ✉ **Usurbilgo Udala**. Ploi bat behar da. 18 urte baino gehiago izan behar ditu, oinarritzko ikasketak edo baliokideren bat izatea eta B-1 gida agiria izatea beha-

rezko baldintzak dira.

- ✉ **Usurbilgo Udala**. Igeltsero bat behar da. 18 urte baino gehiago eduki behar ditu, B-1 gida agiria, eta eskola graduatu, lehen mailako eskola graduatu edo titulu baliokidea.

- ✉ **Azkoitiako Udala**. Bi udaltzain behar dira. Baldintzak: 18 eta 30 urte bitarte izatea, eskola graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokid den titulua izatea, B-1 gida-baimena izatea. Izena emateko **epea: 97-5-14**. Informazio gehiago Gipuzkoako GAOko 69. zenbakian .

BAZKIDE TXARTELAK
5000 PEZETA URTE OGORAKO

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____

H A M A B O S T E K A R I A
z
n
ii

Kirol agenda

MAIATZAK 1 osteguna

- Erregional mailako **futbol** partidua (M): **Mariño C.D.- Usurbil F.T.**
- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Allerru S.D."B".**
- Kadete mailako **eskubalo** partidua (N): **Usurbil K.E.- Ereintza Tx.** Oiaro kiroldegian, goizeko **10.00**etan.
- Jubenil mailako **eskubalo** partidua (N): **Usurbil K.E.- Elgoibar.** Oiaro kiroldegian, goizeko **11.30**etan.
- kadete mailako **eskubalo** partidua (M): **Egia- Usurbil.**

MAIATZAK 3 larunbata

- **Areto futboleko** partidua (M): **Centro Extremeño- Antxeta jatetxea.**
- kadete mailako **eskubalo** partidua (N): **Usurbil K.E.- Zarautz.** Oiaro kiroldegian, arratsaldeko **16.30**etan.
- Jubenil mailako **eskubalo** partidua (N): **Pulpo- Usurbil K.E.**

- Kadete mailako **eskubalo** partidua (M): **Usurbil K.E.- Pulpo.** Oiaro kiroldegian, arratsaldeko **18.00**etan.
- Erregional mailako **eskubalo** partidua (M): **Bergara- Usurbil K.E.**

MAIATZAK 4 igandea

- **Kontxan hondartzako txapelketako finala:** **Aginaga Sagardotegia- Bar Ignacio.**
- Senior mailako **saskibalo** partidua (M): **Usurbil S.T.-Oriogi.**
- Erregional mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Urnieta K.E.**
- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Miren Bihotza C.D.- Usurbil F.T.**

MAIATZAK 10 larunbata

- Donostialdeko **Gimnasia Erritmikoaren** topaketa eta txapelketa ospatuko da. Oiaro kiroldegian, arratsaldeko **17.00**etan.
- Usurbilgo **Igeriketa Eskolako taldeak "Igeriketa Txapelketa"**n parte hartuko du. Arratsaldeko **15.30**etan,

Zarauzko igerilekuan.

- **Areto futboleko** partidua (M): **Antxeta Jatetxea- Axular.**
- Kadete mailako **eskubalo** partidua (N): **Ereintza- Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubalo** partidua (M): **Usurbil K.E.- Aloña Mendi.** Oiaro kiroldegian, arratsaldeko **16.00**etan.
- Kadete mailako **eskubalo** partidua (M): **Bidasoa- Usurbil K.E.**
- Erregional mailako **eskubalo** partidua (M): **Usurbil K.E.- Egia.** Oiaro kiroldegian, **17.30**etan.
- Senior mailako **saskibalo** partidua (M): **S.T.L. Uztapide.- Usurbil S.T.**

MAIATZAK 11 igandea

- **Futbol** partidua (N): **Usurbil F.T.- Bergara K.E.**
- Erregional mailako **futbol** partidua (M): **Celtic Bidasoa C.D.- Usurbil F.T.**
- Jubenil mailako **futbol** partidua (M): **Usurbil F.T.- Gazteak**

maitzak

FUTBOLA

Apirilak 19-20
Usurbil- Donibane, 4-1 (err. m)
Usurbil- Irundarra, 7-2 (ka., m)
Usurbil- Intxaurren, 1-4 (j., m)
Aloña Mendi- Usurbil, 0-2 (n)
Apirilak 26-27
Gwendoline-Usurbil 5-4 (er., m)
Usurbil- Hondarribia, 1-1 (n)
Aldapetarra- Usurbil 1-1 (kadet.)

ESKUBALOIA

Apirilak 19-20
Arrate- Usurbil, 19-19 (Ju., n)
Usurbil- Bidebieta, 18-18 (ka., n)
Apirilak 26-27
Pulpo- Usurbil, 6-7 (Kad. n)
Usurbil- Zarautz, 28-25 (kad. m)
Usurbil- Pulpo, 25-22 (errej. m)

SASKIBALOIA

Apirilak 19-20
Usurbil- Txantxakua, 53-73

Apirilak 26-27

Hautzaro- Usurbil, 62-34

ARETO FUTBOLA

Apirilak 19-20
Antxeta jatetxea- Elgoibar, 1-1
Apirilak 26-27
Antxeta - Aloña Mendi, 2-1

ARETO FUTBOLA

Apirilak 19-20
Aginaga Sag.- Bocatta, 3-0.

Barruko arropa-lanak-eta
etxeako arropak

Aritzeta kalea, 1
telefonoa: 36 17 87



San Esteban kalea, 1
Usurbil Tlf 36 00 80

GONZALEZ EHORZKETAK



Era guztietako
zerbitzuak
EGUNEKO
24 ORDUETAN
Olarriondo, 5- 8
☎ 36 21 63

USURBIL OPTIKA



Iraza kalea, 9-11. 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxe: 37 02 69(Gipuzkoa)



Sohütako dantzariak herriko kaleak zeharkatu zituzten, eta usurbildarrek ere beren trebezia erakusteko aukera izan zuten.

Elkarrekin egindako bazkariaren ondoren, 500.000 pezetako txekia jaso zuen Itxaro Bordak, Eperra ikastolako zuzendaria, irrifartsu.

Dagoeneko 515.000 pezeta bildu ditugu zuberotarrentzat! Ezti salmetarekin eta eltze-itsuetako diruarekin 800.000 pezetara iritsiko gara!
ESKERRIK ASKO GUZTIOI!



